


Martutene

Irutxulo

Arantzazuko Ama ikastolak utzitako 300 metro karratuko lokalean dago gazteleku berria. Gazteentzako zentru honi esker, auzoko gazteek orain arte baino kultur ekintza gehiago egiteko aukera izango dute, eta udal informazioa ere eskura izango dute. Udal Musika Eskolaren kontzertu batekin inauguratu zen auzoko azpiegitura berri hau joan den ostegunean, hilak 16.

Gazte ekimena indartzeko

Martuteneko gaztelekuak Kontadores eta Altzakoarekin antz handia izango du. Lehen asmoa gazteentzako bilgune izan eta gazte ekimena indartzea da. Gaztelekuak programatutako ekintzak aurrera eramateko bi tailer ditu. Horrez gain, balio askotarako areto handia ere badu, gazteek ezezik, gainerako auzo elkarte eta ordezkariek



Arantzazuko Ama ikastolan dago Martuteneko gaztelekuak.

ere erabili ahal izango dutena.

Bestalde, orain arte Martutenera iristen ez zen udal informazioa helaraziko dutela adierazi du Arritxu Maraño Gazteria zinegotziak: *"Gazteek Udalak antolatzen dituen ekintzen berri izan eta hauekin bat egitea nahi dugu. Udala eta gazteen arteko harremana estuagoa izan behar du"*.

Udalak hogeita hamar milioi pezeta erabili ditu Arantzazuko Ama ikastolaren egoitza egokitzeko. Lokal berria behar beharrezkoa zen, 1995etik egoitza txiki eta deseroso batean biltzen baitziren auzoko gazteak. Zabaldutako gazteleku berriari esker, kultur ekintza eta aisialdirako aukera gehiago izango dute gazteek hemendik aurrera.

Altza

Santo Tomasak Larratxon

Larraitz Garmendia (lfnoo.: 943-391267)

auzoan Donostian baino lehenago ospatuko dira Santo Tomasak. Datorren larunbatean, hilak 18, Larratxoko Josu Artetxe plazan Txalaka, Azpil eta Zurrumbilo taldeek txistor postuak jarriko dituzte.

Altzako zazpi baserriarrek bertan landatutako produktuak jarriko dituzte salgai. Barazkiez gain, txerriak erosteko aukera izango da eta zenbait abere ere plazaratuko dituzte. Urtean behin, behintzat, baserri giroa izan ohi dugu Larratxon.

Arratsaldean ere izango da zerikusia. Trikitilari eta bertso-larrietan gain, Azoka Gorria izenekoa ere antolatuko da. Azoka horretan auzoko zenbait elkarte beren produktuak salduko dituzte.

KM
kulturrea
Urdaneta kalea, 9
DONOSTIA

Erakusketa

JUAN LUIS MORAZA
Interpasividad

1999ko azaroak 30 - 2000ko otsailak 5

 Gipuzkoako Foru Aldundia





ADDICT
AEROBIC LINE • ADDICT • RM

Galtzerdiak

AEROBIC eta FITNESS,
jantzi-musika eta osagarrietan
espezialistak

KIROL MODA
Euskal Herriko banatzailea

San Frantzisko 56 - Tfnoa.: (943) 32 24 40
DONOSTIA - GROS